



EUSKAL HERRIA ZUZENEAN 2014

PROGRAMAZIOA

EHZ
0559702008
info@ehz-festibala.eu





EHZ 2014

Euskal Herria Zuzenean festibalaren 19.edizioa heldu den Ekainaren 27/28/29an iraganen da Lekornen.

Etorkizunari begira antolatzaileei segurtasuna ematen digun informazioa, Lekorneko Herriko Etxearekin berriki izenpetu dugun 4 urterako partaidetza da dudarik gabe, EHZren 20.urteurrena lasaitasun osoz Lekornen ospatzea ahalbidetuko baitigu.

Festibala gero eta hurbilago dugu... eta ohiko errezeta ez da aldatzen: 3 egun, akanpaleku 1, 3 aparkaleku, 5 eszena, 60 ikusgarri, 15000 pertsona, 1500 oihaletxe, 650 laguntzaile...

Festibalerako bi hilabete falta direla, programazio musikala iragarri beharko genuke, ezta?

Ohi bezala, afitxa-buru, tokiko talde eta ezagutzekin osatu dugu aurtengo afitxa ere.

Iragarpena hain berant egitea, borondatezko erabaki bat da guretzat. Aurten, atxikiak zaizkion proiektu batzuk bultzatzeko aukera izan du EHZk:

-EhrZ musika lehiaketa sekulako arrakasta da adibidez

-Eztabaidaguneko programazioaren iragarpena ere momentu azkarra izan da guretzat, festibal garaian gogoetak zinezko lekua bat duela erakutsi ahal izan baitiogu publikoari

-ehKz gazte komunikazio proiektuaren abiatzeak ere, euskal gazteriak lurralde honetako eragile izateko duen borondatea erakusten du, horrelako proiektuekin hartzen du funtsa EHZk.

-EhrtipiZ haurren egunaren antolaketa zinezko berritasun bat izanen da.

-Paraleloki, Donostia eta Iruñeko gazteekin besteak beste, proiektu anitz sortzen ari gira eta ondoko asteetan egikarituko ditugu.

2013-2014 ikasturtean ere, gogoeta, bilkura, buruhauste, irri karkaila, topaketa eta lan anitz izan dugu. Festibala, esperientzia horien bururapen bat bezala heltzen da. Egin dezagun beraz 3 egun horiekin, nahi dugun Euskal Herriaren erakusleaho bat, irudikatzen dugun jendartearen erakusleaho bat: anitza, elkartasunean oinarritua eta bere nortasunaz jakitun.

Programazioa

Estilo aniztasunean oinarrituko da gau eta egun bakoitza. Amets egiteko reggae-a, hip-hop mitiko eta engaiatua, gure erokeria iratzartzeko rock-a, elektro punk-a bolumen azkarrean, etab.

Baina hori guzia, festibalaren zutabe nagusia Euskal Herria dela aherentzi gabe... eta gurera zentratuak egonik ere, munduari irekitzeko ohiko borondatearekin.

Hori horrela, euskal taldeek eta kultura zapalduak behingoz libreki hitza har zezaketen nazioarteko musika lehiaketan parte hartu dutenek ere, beren tokia izanen dute eszena nagusian.

EHZk helburu berdinak ditu urtero, formula berdina, osagai berdinak; baina programazioaren aberastasuna baino gehiago, parte hartzaileek, laguntzaileek, ikusleek eta inguratzen duten jendeek egiten dute festibal berri eta desberdina 2014ean.

EKAINAK 27/28/29 JUIN - LEKORNE MENDIONDE
Baionatik 20 min de Bayonne



EHZ
FESTIBALA
Antzineun ez irauti, kultura erortu

PENDULUM dj set & verse - **SKA-P** - **DUB INC**
SHANTEL - **AMADOU ET MARIAM** - **GATIBU**
YANISS ODU - **BIGFLO & OLI** - **RUPER ORDORIKA**
CABARET FREAKS - **BIRTH OF JOY** - **ESNE BELTZA**
THE INSPECTOR CLUZO - **BONAPARTE** - **ZEA MAYS**
THE EXCITEMENTS - **THE LEGENDARY TIGERMAN**
MEXICAN INSTITUTE OF SOUND - **KASHBAD** - **ODEI & CUBENX**
ANDREAS ET NICOLAS - **NINA COYOTE** **ETA CHICO TORNADO**
ZEZENAREN TALDEA - **THE LOOKERS** ...

www.ehz-festibala.eu



DUB INCORPORATION
CABARET FREAKS
ZEA MAYS
LEGENDARY TIGERMAN
MEXICAN INSTITUTE OF SOUND
ANDREAS ET NICOLAS
NINA COYOTE ETA CHICO TORNADO
ZEZENAREN TALDEA





DUB INCORPORATION - fr - Reggae

1997-an sortua, Saint Etienne-eko taldeak reggae indartsu eta militante bat proposatzen du. Dub Inc eszenako talde aparta da eta kontzertu bakotxa baliatzen du publikoarekin harreman berezi bat sortzeko. Taldeak reggae-ren estilo asko batzen ditu bere musikan influentzia desberdin askorekin. Esklusiboki EHZN izanen dira, kontzertu jauzkorra eskaintzeko.



CABARET FREAKS - fr - Reggae

Cabaret Freaks kontzertu bat baino gehiago da. Benetazko soinu eta irudi bizipen bat, musika elektronikoa, kabareta burleskoa eta zirkoaren erdigunean. Estilo eta arlo ezberdinen mugak urratuz (txinatar itzalak, magia, zirko berria, estilismoa, teknologia berriak, komedia, dantza garaikidea, etab.) ibilaldi frenetiko bat proposatua zaigu beste mundu batetik etorritako pertsonai harrigarrien bitartez.





ZEAMAYS
EH - Pop Rock

1997-an sortutako talde Bilbotarra Lekornera dator! Zea Maysen etorrera, Aiora Renteria, kantariaren ahots indartsu eta sakona, zuzenean deskubritzeko parada izanen da. Oraingo euskal rock zirraragarria eta luxuzko erakustaldia egiten dute Aioraren ahots bikain eta erakargarriarekin. Kontzertu bizi eta indartsua eskainiko digute festibalean.



THE LEGENDARY TIGERMAN
Por - Rock

The legendary Tigerman, bakarkako artista da eta bere arloan maisua. Artistaren musikak Gull-en lanari ite du. Gizon orkestra horrek bidaiaraziko gaitu bere munduan eta jakin ezazue ez girela enoatuko!



MEXICAN INSTITUTE OF SOUND
Mex - Electro

Mexican Institut Of Sound, textu engaiatu eta erritmo bizkorren arteko topaketa da. Taldea Mexikotik dator Calle 13 bezala. Korruptzioaren eta drogaren aurka borrokatzen da bere musikaren bidez. Talde mexikarrarekin pausarik ez, izerditan izanen zirezte.



NINA COYOTE ETA CHICO TORNADO
EH - Pop Rock

Hego euskal-herriko taldea Lekornera dator haien bateria eta gitarrarekin sua piztera. Zuloak taldearekin jo duen bikoteak, sekulako giroa ezartzeko asmoa du.



ANDREAS ET NICOLAS
EH - Pop Rock

Ez da balio galdetzea zer pasatzen den Andreas eta Nicolasen buru-muinetan, ez gira gai azaltzeko eta hola hobe. Bi fenomenoek folk ero bat proposatzen dute humore askorekin. Ahate kolekzioa (ahateak bizirik dira), hartza batekin besarkada, bi lagunak burutik joanak dira. Zatozte haien erokeria partekatzerantz kontzertu akustekiko batean.



ZEZENAREN TALDEA
EH - Ska

Zezenaren taldeak arrunt unibertso berezia du. Bere musika eta jantziek, Goran Bregovic eta Emir Kusturicaren estiloa orroitarazten dute. Zatozte zezenaren mundua deskubritzerat eta ez ahantz, GORA ZEZENASKATUTA!





SKA-P
PENDULUM dj Set
BIGFLO ET OLI
YANISS ODU
GATIBU
BIRTH OF JOY
KASHBAD
BONAPARTE
THE LOOKERS
DFS





SKA-P - Esp - Ska/punk

Ska-p talde mitikoa lehen aldikotz festibalera dator bere ska-punk famatuarekin Lekorneko pentzeari sua ematera. Badu orain hogeitun urte madrildarrak mundu osoan zehar ibiltzen direla haien ideiak aldarrikatzen. Langileen eskubideen alde eta korrupzioaren aurka borrokatzen dira. Artista engaiatuak, ez dute isiltzeko asmorik eta ez dute pentsatzen dutena erraiteko beldurrik. Ska-p-ren kontzertua gertakizun haundia izanen da, dudarik gabe.



PENDULUM dj set et Verse Aus - elektro

Pendulum, musika elektronikoaren talde mitiko bat da. Perth hiritik heldu den talde australiarra, Prodigyren erara, musika elektroniko indartsu eta dantzari bat proposatzen du, rock eta Drum n'bass soinuekin. EHZ-k DJ Set bertsioa proposatzen du MC Verse-arekin, Pendulumen unibertsoan murgiltzeko.





BIRTH OF JOY
Hol - Pop Rock

Herbeheretako hirukotea festibalera dator bere Rock n'Roll psikedelikoarekin. Queen of the stone age-en riflen indarra eta The Doors taldearen melodia goxoak azkenean talde bakar batean baturik. Zinezko makina eszenikoa, taldeak 100 kontzertu inguru segurtatu ditu 2013. urtean zehar. 2014-an berriz abitzen dira bira berri batentzat eta festibala hautatu dute lehen datarentzat. Sekulako grintarekin ikusiko dituzue Lekornen!




BIGFLO ET OLI - Fr - Rap

Gazteak dira, biziki trebeak, eta ez gira bakarrik hori pentsatzen. Big flo eta Olik frantses Hip-Hop-aren biharamuna errepresentatzen dute 17 eta 21 urterekin baizik. Flow harrigarri bat, instrumentu eraginkorrak eta eszena joko bikain bat, bi artista gazte horiek harrituko zaituztete, jada Orelsan edo Kyan Khojandi (bref), harritu dituzten bezala.



YANISS ODUK
Fr - Reggae

2013-an, Yaniss Oduak bere hogeitaz hamar urteak musikaren munduan ospatu ditu. Ez bada beste artista batzu bezain goraiatua, frantses reggae-ren artista nagusietariko bat da. Artista engaiatua, ekologia, edukazioa edo politika bezalako gai garrantzitsuak aipatzen ditu bere kantuetan.



KASHBAD
EH - Pop Rock

2007-an musika jotzeari utzi zion euskal taldeak, berriro eszena gainera igotzea erabaki du aurten. Zazpi urtez muturik egon ondoren, festibalera datoz lekorneko bazterrak inar-rostera.



GATIBU - EH - Rock

Gatibu euskal rock taldea da, Gernikan sortua. Bizkaitarrak, Alex Sardui, Exkixu-ko kantari ohiaren inguruan batu dira taldea sortzeko 2002-an. Alexen ahots goxo eta eszena jokoari esker kontzertu bikain bat pasatuko duzue.





**AMADOU ET MARIAM
SHANTEL
RUPER ORDORIKA
ESNE BELTZA
THE INSPECTOR CLUZO
THE EXCITEMENTS
ODEI ET CUBENX**





AMADOU ET MARIAM - Malia - World Music

Amadou et Mariam-ek Manu Chao edo Damon Albarn (Gorillaz) bezalako artista ezagunekin lan egin ohi dute eta garrantzia haundia hartu dute musikaren munduan. Biko-tea, Transmusicales edo Vieilles Charrues-ko eszenatoki famatueta igo da. Blues eta maliko kantu tradizionalaren artean, Amadou et Mariam-ek bidaiatzera eramanen gaituzte.



SHANTEL - Alem - Balkan music

Ze poza Shantel errezebitzea, Goran Bregovic eta Emir Kustoricaren seme espiritualak. Lehen aldikotz Euskal-Herrira dator festibaleko eszena haundiari sua emaitera. Shantelen musikak Balkanoko bazter guzietara eramanen zaituzte kontzertu denboran.





THE INSPECTOR CLUZ
fr - Rock

The Inspector Cluzo, Mont de Marsan-eko bikotea, talde berezia da. Kalitatezko musika, Rock n'Roll indartsua eta humore askoren arteko topaketa da. ACDC-k pailazo bat jan balu bezala!



ESNE BELTZA - EH - ska

Esne Beltza, talde euskalduna, festivalera bueltatzen da aurten, bi urte lehenago kriston giroa eman ondoren heletako eszena tokian. Taldearen musika, reggae, ska, eta hip-hoparen arteko topaketa indartsu bat da, Xabi Solanoren trikitixa famatuak eramanik.



RUPER ORDORIKA
EH - folk

Euskal kantari emblematikoa Lekornera heldu zauku aurten, kontzertu goxo baten ematera. Badu kasik berrogei urte Oñatiarrak herri kantaren tradizioa eta rockaren nortasuna batzen dituela ere kantuetan gure plazer haundienarendako.



THE EXCITEMENTS
Kat - Soul

Bartzelonakoak dira eta kriston energia dute: The Excitements, Soul-aren eta Rythm & Blues-aren indarra, kantariaren ahots izugarria eta eszena joko paregabe bat da, 70 urteetako Motown taldeen erara.



ODEI et CUBENX
EH - Elektro

Aurten, Cubenx, artista mexikarra eta Odei, euskal hirukotearen arteko kolaborazioa deskubritzea proposatzen dizuego. Taldeak, musika elektronikoaren ezaugarri guziak miatzen ditu eta emaitzak baliatu du ostatua uztea kontzertu aintzinean plantatzeko.





EHZ FESTIBALA - EKAINAK 27/28/29 - LEKORNE

TXARTELTEGIA

BONOA 3 EGUN 55 euro

WEB

**www.ehz-festibala.eu
www.ticketnet.fr
www.francebillet.com**

SALPUNTUAK

Elkar: Baiona

Carrefour: Baiona, Donibane

Lohizune, Lescar, Dax, Tarnos, Mont de Marsan.

Fnac: Baiona, Pau.

Geant Casino: Anglet, Pau.





HURRENGO HITZORDUA : APIRILAREN 26A !!!

Artean

Bost urte jadanik **Artean** sorkuntza programa martxan jarri dugula. Aurten dimentsio berezi bat hartuko du.

Hala nola Euskal Herri osoko beste gazte eragileekin elkarlanean eta auzolanaz azpiegitura amakomun bat muntatzea litzateke. Bide honetatik gure herriko gazteri ezberdinen arteko harremanak saretzea eta sendotzea gugu helburu. **Horretarako lan bat abiatua dugu Donostiako Piratak eta Iruneako Irundarrok gazte eragileekin.** Erran gabe doa bidean beste lagun batzu ere batuko zaigigula.

Proiektu amankomuna erabat definitzekoa baldin bada oraindik ere, lehen lan saio batzu burutu ditugu eta egindako lanaz pozik gira. Gazte eragile bakoitzak bere jakintza, gabeziak eta beharrak zerrendatu ondoren behar amankomunak aurkitzeari ekin diogu, ondoren elkarrekin behar horri erantzuteko xedez. Bi bilkura burutu ondoren lehen **lan eguna apirilaren 26 izango dugu Lekorneko Garroa gazteluan.** Bertan gazte eragileek urteetan zehar arlo ezberdinetan dugun jakintza trukatzeko ahalko dugu, lanketa amankomunari lehen harria jarriz.

Guzi hau zehaztuz joango gira gaurtik festibalera geratzen zaizkigun hilabeteetan eta hiru egunetan zehar lan hunen fruituak ere ikusten ahalko dituzue.

